

KANALAK

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Lehenengo, lokalak alkitatzen dituzten pertsonekin kontaktuan jarriko gara. Horretarako, gu joango gara pertsonalki Durangaldeko herrietatik alkitagai dauden lokalak bilatzen. Orduan, jabeekin hitz egingo dugu gure zerbitzua eskuragarri dutela jakinarazteko.

Beste aldetik, gure bezero gazteen arreta ekarazteko, eskoletan, kirolguneetan eta sare sozialetan iragartuko dugu gure proiektua. Kartelak eskegiko ditugu, proiektua azaltzen egongo gara entzun nahi gaituzten pertsonentzat eta sare sozialetan bideoak eta argazkiak eskegiko ditugu proiektuaren funtzionamendua azaltzen eta gure informazio guztia eskeintzen. Guzti hau kontuan hartuta, gure kanal mota kanal zuzena da.